

Denetarik pixka bat: ergatiboa, mugagabea, singularra edo plurala aditzetan, erlatiboak eta zehar galderak, partitiboa... Hutsuneetan idatz ezazu hitz OSOA (gaudela zenigunik...

Begoña Enbeita

Muxikako Udala

Muxika

Muxikan, 2020ko abenduaren 18an

Alkate agurgarria:

Oiane Gutierrez naiz, muxikako biztanlea eta " Salba dezagun Belaundia" elkartearen ordezkaria , eta gutun honen bidez adierazi nahi dugunez ez gaude..... ados Udala..... Belaundia jauregiari buruz duen proiektuarekin.

Badakizu behin baino gehiagotan egon gara..... bilduta hainbat batzar..... . Horietako guztietan esan dizugu, jauregia..... balio historiko handia duenez, udala..... ahalegin guzti..... egingo ditu..... eraikina berritzeko; era berean, argi eta garbi utzi diguzu ez dugu..... inondik inora onartuko jauregia bota..... , ezta haren lekuan etxebizitz..... egin..... ere.

Zoriturrez, azken osoko bilkurako akta irakurri dugu, bestelako erabakia hartu duzue..... erakusten du..... Imajinatuko duzu zein haserre gaude..... batetik zure hitz..... balio..... ez dutelako; bestetik , adarra jo zenigun..... ulertzen dugulako. Ez dakigu zein da..... hori egiteko arrazoiak, baina uste dugu eraikuntza arloko enpresarioren batek presionatu..... eta horregatik aldatu duzue..... iritzia. Badakigu horrelako..... sarri gertatzen direla; hala ere, hiri handietako kontua zelakoan geunden.

Berriro ere jauregia salbatzeko dauden arrazoiak adierazi nahi..... . Lehenik eta behin, herrian dagoen bakarra da eta herriari ondare arloan ospea ematen Ez dakit badakizu..... XVI.mendean eraiki zuen..... . Belaundia familia..... , eta Euskal Herriko historiako hainbat sasoi... protagonismo handia izan zuen..... bai karlistadetan bai guda zibilean. Bigarrenik, Bizkaiko Foru Aldundia..... Bizkaiko Jauregi interesgarrien artean katalogatuta dauka orain dela urte asko.....; jakina, hor, egotea eraikin horiek botatzeko debekua dakar. Azkenik, herritar gehien..... argi eta garbi dute babestu egin behar da..... , baita bertan herriarentzako proiektu egokia garatu beharko ere.

Zurekin izandako batzarretan bi proposamen..... egin genizkizun; lehenengoa herriko kultur etxea bertan kokatu....., gaurkoa txiki..... geratzeaz gain, herrigunetik urrunegi..... dagoelako; bigarrena, zahar etxea bertan jarri..... , orain herriko zaharr..... ez daukatelako elkartzeko leku..... .

Amaitzeko, gauza bat argi utzi nahi dizugu; erabaki hori aldatu ezean, batzarra..... alde batera utzi eta neurri gogorrago..... ere hartuko ditugu(sinadurak bildu..... , manifestazioak, komunikabideetan arazo honen berri eman.....). Dena dela, azken ahalegina egiteko prest gaude, zeu..... borondatea erakusten baduzu.

Beste barik, laster batzarra izango dugulakoan, adeitasunez agurtzen zaitut.